

# Schäublek greziarren aurretik alemanak ere zukutu zituen

25 urteko tartearrekin, Europa astindu duten bi gertakizun nagusitan protagonista izan da Wolfgang Schäuble ministro alemana. 1990eko hamarkadan Eki Alemania kapitalismoan murgilarazteko operazioa kudeatu zuen. Uda honetan Greziako herritarrei erreferendum itxaropentsu baten emaitza irentsarazi die. Ez da kasualitatez gertatu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

SCHÄUBLE GORROTATZEA ERRAZA da Europako herritar askorentzako. Greziarrei beren nahiaren kontra hirugarren memorandumua inposatu dion Europar Batasuneko elitearen ordezkari geratu da historiako. Bistakoa den arren indar eta pertsona askoren erabakia izan dela, greziarrak pobrezia kondenuatu eta europar guztiei murrizketa basatiak ezarri dizkien Troikaren auzpegia da Schäuble, erreferendumaren aurretik negoziaketan beroan Yanis Varoufakis ministro greziarrari aulki gurgildunetik mehatxu egiten ikusi genuen gizona.

Doixtarren eta zehazki Schäuble-  
ren jokabide gogor eta erruki gabea ulertzeko, Alemaniatik Europara zabaldu den *ordoliberalismoa* aipatu dute *Le Monde Diplomatique* François Denord eta Pierre Rimbert soziologoek eta Rachel Knaebel kazetariak: “Ordoliberalismo alemana, burdinazko kaiola Europarentzako”.

1930eko hamarkadan sortua, *Freiburgeko Eskola* ere deitu zaio, hiri hartatik zabaldu zelako. Schäublek sarritan oroitarazten du hiri hartan jaioa dela. Latinezko ‘*Ordo*’ (ordena) izena eman zioten beren aldizkariari liberalismoaren barruko korrante hau sortu zuten ekonomialari eta pentsalariek. Alemanez ‘*ordnung*’ hitza darabilte ‘orden’,

‘araudi’ edo ‘diziplina’ esateko. Bitxikeria moduan, *Ordnung* deitzen diote beren araudiari Amish eta Menonita kontserbadoreek, idatzi gabe ere kide guztiek derrigor ezagutu eta errespetatu behar duten arau sailari. Hortik doa kontua, nola bermatu ekonomia kapitalista liberalaren ordena eta diziplina.

“Anglosaxoiek –diote Denord, Rimbert eta Knaebelek– *laissez-faire* aldarrikatzen duten bezala, ordoliberalak ere arbuatzen dute Estatuak merkatuan esku hartzea. Baina, hauek uste dute konkurrentzia librea ez dela berez garatzen. Ondorioz, Estatuak antolatu egin behar konkurrentzia: merkatuaren eremu juridiko, tekniko, sozial, moral eta kulturazkoa eraiki behar ditu. Eta arauak betearazi. Horra zer den ‘ordopolitika’ (*Ordnungspolitik*)”.

Greziar uztailan egindako erreferendumaz aritzerakoan, beraz, joko politikoaren bi ikuspegi zeuden aurrez aurre. “Buzuzagi greziarrek uste izan dute herritarren botoek nagusitasuna daukatela kontabilitate ekonomikoaren gainetik eta hautatutako agintariak badaukatela ahalmena arauak aldatzeko. Aldiz, [alemanen iritziz] gobernuaren jardunak egon behar du ordena zorrotz zaintzearen mende; politikariek nahi duten moduan jokatu dezakete baldin eta ez badira irteten

*Reuters* agentziarentzako Ralph Orlowskek egindako argazkian, Wolfgang Schäuble Alemaniako finantza ministroa. Greziaren hirugarren erreskateak, herritarrek erreferendumean arbuatu baina Troikaren prezio azkenean Alexis Tsiprasek onartu behar izan duenak, aurrekusten du erakunde berri bat herrialdearen ondasun publikoak pribatizatuz teorian 50.000 milioi euroko bermea osatu behar duena. Europako erabaki ekonomikoetan gizonik botereetsuena den Schäublek antzeko erakunde abiarazi zuen orain dela 25 urte bi Alemaniak batzeko operazio handiaren erdian. Orduan porrot egin bazuen, zergatik errepikatzen ditu formulak? Bere kultura eta estrategia ordoliberalengatik, diote aditu batzuek. Esplikazio xumeagoa du Dirk Laabsek: “Schäublek kontable gogor eta zorrotzaren itxurak egiten ditu. Baina benetan ez da lehengo akats zaharrak errepikatzen dituen politiko arrunt bat besterik”.

markotik, eta marko hau *de facto* eztabaida demokratikotik kanpo dago. Finantzen ministro aleman Wolfgang Schäublekan mamitzen da pentsakera hau. ‘Beretzako arauak jainkozko izakera daukate’ idatzi du Yanis Varoufakisek”.

Hainbestearino bilakatu da ordoliberalismoa establishmentaren ortodoxia, ezen eta *Der Spiegel* aste-kari liberalak uztailaren 6an publikatu baitzuen: “Inork nahi baldin bazuen frogatu zein arriskuak diren erreferendumak demokrazia modernoentzako, horra frogara”. Ohartzerako, ordoliberalismoa [ikus Baleren Bakaikoaren azalpena ARGIA honen 18. orrialdean] sagaraturik geneukan Europa osoan: lehenik merkatu kapitalista, horren baitan demokrazia.

## Treuhand: pribatizazioen porrota

Baina Freiburgeko eskolako zaindari baino gehiago da Wolfgang Schäuble, Dirk Laabs kazetariak oroitarazi berri duenez, ingelesez *The Guardian*en, gaztelaniaz *Sin Permision*: “Zergatik da hain gogorra Alemania Greziarekin? Mende laurdenez atzera eginda”.

Dirk Laabsek plazaratuta dauka liburu bat Eki Alemania Mendebaldekoan integratzeko egindako bideaz: “*The German Gold Rush: The True History of the Treuhander*” (Alema-



zen, utzi gabe burokrata komunista ustelei Mendebaldeko Alemaniari saltzen.

Schäubleri gustatu zitzaion ideia, operazioaren gidaritza emango ziolako halako independentzia itxura bat zeukan erakunde berri bati. Bera jarri zen Treuhanden buru.

Laabsen haritik tiraka, Thomas Morel historiagileak laburbildu du Schäublek Alemaniako langileei ekarritako kalamitatea *“Ce que la réunification allemande nous enseigne sur la crise grecque actuelle”* artikuluan.

Treuhand lanean hasirik, ez parlamentuari eta ez herritarrei konturik eman beharrik gabe, ustelkeria kasuak nagusitu ziren. Mendebaldeko konpainiak hasi ziren opilaren zatiak berenganatzeko borrokan. “Supermerkatuak, hotelak, etxebizitzak, bankuak... herrialde oso bat saldu zen ogi koskor baten truke”.

Baina ugazaba berriek gehiago nahi zuten. Eta xantaia egin zioten estatuari, enpresak ixteko, milaka langile kaleratzeko, inbertsioetarako diru-laguntzak eskuratzeko... beraiek xentimorik arriskatu gabe.

Alemania osoko langileei ekarri zien 20 urteko atzerakada, mendebaldekoei ere bai. Soldaten ‘moderazioa’, enpresak ekialdera deslokalizatzeko mehatxuak, ongizate estatuaren sutsitzea... Eta gainera Treuhandek porrota jo zuen 1995ean, Alemania batuari sekulako zorrak utziaz: hasieran 100.000 milioi euro aipatu, benetan pribatizazioekin 34.000 milioi lortu eta azkenerako 105.000 milioi galdu. Alemaniako herritar asko oroitzen ez diren arren, zor haiek ere herritarrek ordaindu zituzten. ■


nian denak urre bila ero moduan: Treuhan erakundearen benetako historia”. Greziari bortxaz onartarazi zaion itunean aipatzen denez ondasun publikoak salduz 50.000 milioi euro lortu eta zorrak kitatzeko erabili beharra, Laabsek kontatu du mekanika bera erabili zuela Schäublek duela 25 urte Eki Alemaniako ondasunak likidatzeko.

1990eko udan bera zen, Schäuble, Alemania bateratzeko batzordearen buruetakoa, Helmut Kohl kantzilerraren esku eskuina. Eki Alemaniako egoera, dio Laabsek, ez zen Grezian Syriza irabazitakoan zegoenaren hain ezberdina. Herritarrek historiako lehenbiziko hauteskunde libreak burutuak zituzten, Berlingo harresia erori berria, eta

beren ordezkarietako batzuek amesten zuten Ekialdeko sistema sozialistaren eta mendebaldeko merkatu ekonomiaren arteko “hirugarren bidean”, baina ezin zuten asmatu fakturak nola pagatu.

“Aldiz, mendebaldeko alemanek, negoziaketa mahaiaren beste aldean, indarra zeukaten, dirua eta plan bat: Eki Alemaniako estatuak zeukan guztia Mendebaldeak bereganatuko zuen eta berehala salduko zien inbertsiogile pribatuei. Beste hitzetan esanda: Schäublek eta bere ekipoak bermeak nahi zituzten”.

Treuhand izeneko erakundea hasieran ekialdeko disidente batzuk asmatu zuten, sistema sozialistako konpainiak modu ordenatuan bertako enpresa pribatu bihurtu zite-





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**zuri begira**